



Izenburua	UDALAK EUSKARAZ ETA... ZUK ZERGATIK EZ?
Egilea	Karlos Gorrindo eta Bittor Zarrabeitia
Data	2013/02/15

aurkibidea


1. Sarrera-hausnarketa	02
2. Udal erakundearen egoera	06
3. Herritarren gaitasuna	09
4. Uztarketaren ordua (Kanpaina).....	11
5. Kanpainaren jarraipena / implementazioa.....	14

1. Sarrera- hausnarketa

1.1 Administrazioko erabilera plana (AEP) hankamotz

Administrazioko ohiko Erabilera Planaren planteamendua dakargu ona, IV. Plangintzaldirako Eusko Jaurlaritzaren power point batek azaltzen zuena.


Administrazioko Erabilera Planerako (AEP) hiru zutoin nagusi:



Elementu horien inguruan borobildu izan dugu orain arteko AEP; administrazio barruko elementu guztiak. Plana eratzerakoan ere aintzat hartu izan ditugu ezagun egiten zaizkigun “komunikazio zirkuluak”, udal saila bakoitzekoak, sail desberdinen artekoak,... konturatu barik herritarrak direla zerbitzu publiko guztien komunikazio zirkulua borobiltzen dutenak eta **jardun-hizkuntzaren hautaketa** baldintzatzen dutenak.

1.2 AEPren ikuspegi zabala/orokorra

Arestikoa kontuan, AEPrako planteamendu berria egin beharra dachusagu.



Hauxe litzateke **AEPren eskema sinplifikatua**: ATOMOA. Nukleoan udal langileak eta politikariak eta, inguruan, herritarrak. Elementuen karga desberdinak oinarri, euren artean **elkarreragin mota desberdinak** izango dira, une bakoitzean zerk duen garrantzi gehiago edo zer egin behar den ebazteko abiapuntua.

Eta teknikariok, osotasun hori interpretatzen, Plana eratu eta kudeatze lanari eusten. Plana gauzatzeko bidean teknikariok ezinbestekoak bagara ere, ez gara erabakiorrak, interpreteak baizik; elementu guztiekin ondo konpondu beharra dugu eta elementuen arteko harremanak eta elkarreragin desberdinak kudeatu.

1.3 Gure esperientzia (udal teknikariona)

“Lehenik, mesprezua jasan behar.

Gero barre egiten dizute.

Ondoren, erasoia datorkizu.

Orduantxe irabazteko aukera.” (Mahatma Gandhi)

Horrelako zerbait gertatu zaigu normalizazioaren bide luze honetan teknikariori:

- **I. eta II. planetan** langileen **gaikuntza** eta trebakuntzari eutsi zitzaion, batik bat. Politikarien arreta gutxirekin eta langile batzuen ez ikustearena jasanda. Euskara guztion altxorra dela eta... aurrera.
- **III. plangintzaldian**, politikariengandik, eta langile batzuegandik ere, planaren helburuen gaineko **sinesmen falta** bizi izan genuen. Langile askok euskara administrazioan txerta zitekeela sinetsi ez arren, euskararen aldeko jarrera erakutsi beharra aintzat hartu zuten. Teknikariok, temati...
- **IV. Plangintzaldian**, gaitasun maila dezente lortuta ere, geuk espero ez genituen **erresistentziak** aurkitu genituen. Euskara lan hizkuntza bihurtzeak, lan-sistemari ukitua egin beharra zekarren eta arrazoirik gabeko **beldurrak** sortu izan dira langileengan eta politikariengan. Segurtasun falta eta beldurra duenak, koska ere egin dezake.

Hargatik, erasoaren fasea bizi izan dugula esango genuke, bide luze honetan bizi izan ditugun unerik gogorrenak, errietaren pareko pasadizoak, planaren helburuak justifikatu beharra,...

BAINA, BIDE HORRETAN ZER ETA ALIATURIK ESTIMATUENA AURKITU IZAN DUGU, planarekin zuzen-zuzen lotzen ez genuena: **HERRITARRA**, zerbitzu publikoaren xede den herritarra, udalarekiko harremanetan euskara erabiltzen hasia dena. Herritarren jokabide hori islatu izana, neurri baten baino ez bada, Erabilera planarentzat txertorik onena izan dugu eta aurrerabidean ere lagunik sendoena izango delakoan gaude.

Badago esaldi topiko/tipiko bat: Administrazioako erabilera planetan langileekin lan egiten ei dugu eta udalerriko erabilera planetan, batik bat, herritarrekin. Guk, aldiz, planteamendu horretatik urrundu nahi dugu; gorputza (atomoa) osotasunean aintzat hartuta, **elementu guztien arteko elkarreragina ez dugu ahaztu behar**, une bakoitzean indarrak desberdinak izango diren arren eta fase batean elementu batek besteak baino garrantzi gehiago izan.


Jarraian, euskararen erabilpenari buruzko datuak azaltzea komenigarri jo dugu, lehenengo udalari dagokionean eta, jarraian, udalerrinari begirakoak, egitasmo dugun UDALAK EUSKARAZ ETA,...ZUK ZERGATIK EZ? kanpaina zuritzeko beharrezkoak.

Kontuan izan baita, guk egindako hausnarketa eta nabarmendutako datuak geure udalerrinari dagozkiola eta egoera soziolinguistikoaren araberako jokabidea dela hautatu duguna.

2. Udal erakundearen egoera

2.1 Hizkuntza eskakizunak (bilakaera: 1999tik 2012ra)

	Lanpostu finkoak	Derrigorrezko HE	Egiaztatu dutenak	Egiaztatu - 1	Ezer egiaztatu ez
1999 urtea	79	59 (% 74,68)	29 (% 49,15)	10	9
2008 urtea	110	101 (% 91,82)	67 (% 66,33)	8	9
2012 urtea	112	101 (% 90,18)	77 (% 76,23)	12	5



Iturria: Euskara Zerbitzua

- Hizkuntza eskakizuna duten lanpostuen kopurua gora joan den heinean baino nabarmenago doa gorantza esgiaztatutakoaren kopurua.
- Ezer ez egiaztatutakoaren kopurua: 5 (euren artean, erdiak ez dira oztopo euskararen erabilerarako).
- Dagokiena baino beheragoko perfila (-1) lortuta dutenen kopurua (12 langile) kontuan hartzekoa da. Langile horietatik gehiengoari 3. perfila dagokio eta gehienek 2. HE lortu dute.

2.2 Lanjardunak eta lanurratsak (bilakaera: 2001-2012)

Urtea	Lanurratsak euskaraz		Lanurratsak eleberaz		Lanurratsak gazteleraz	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
2001 (aztertutako lanurratsak 767)	120	15,60	23	2,90	624	81,30
2008 (aztertutako lanurratsak 1053)	224	21,27	38	3,66	791	75,12
2012 (aztertutako lanurratsak 725)	232	32	106	19,62	387	53,38

Iturria: Euskara Zerbitzua. Koadroetan jasotzen diren **datuak sortze-hizkuntzari dagozkio**. Kontuan hartu behar da 88 lanjardun edo espediente mota landu direla 2012ko datu bilketan, aurreko datu bilketetan konprobatu ahal izan diren bikoizketak saihestuz. Guztira 725 lanurrats.

- **Euskarazko lanurratsetan goranzko bidea** izan da, 2008tik hona 11 puntuko aldea dagoelako eta 2001ekoarekin alderatuz bikoiztu egin da.
- **Eleberazko lanurratsetan gorakada nabarmenagoa** izan da, %3,66tik %19,62ra, baina kontuan hartu behar da sortze-hizkuntza gaztelera dela.
- **Gaztelerazko lanurratsen kopuruak, ostera, beherantz** egin du nabarmen (2001ean %81,30 eta 2012an %53,38).
- **Erdararik euskarara itzulitakoa gutxitu egin da 4 puntu** (2008an produkzio osoaren %44,53 -469 lanurrats- eta 2012an %40,41 -223 lanurrats-). Honako datua ateratzeko, gazteleratik euskarara itzulitakoa eta eleberazkoa batu ditugu.

2.3 Lanurratsak - Barne harremanen eta kanpo harremanen hizkuntza

2001 urtea 765 lanurrats guztira	BARNE HARREMANAK (331 lanurrats)						KANPO HARREMANAK (434 lanurrats)					
	Euskaraz		Eleberaz		Gazteleraz		Euskaraz		Eleberaz		Gazteleraz	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
	59	17,82	6	1,81	266	80,30	61	14,05	17	3,90	356	82,00

2008 urtea 1053 lanurrats guztira	BARNE HARREMANAK (472 lanurrats)						KANPO HARREMANAK (581 lanurrats)					
	Euskaraz		Eleberaz		Gazteleraz		Euskaraz		Eleberaz		Gazteleraz	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
	139	29,45	20	4,24	313	66,31	85	14,63	18	3,10	478	82,27

2012 urtea 725 lanurrats guztira	BARNE HARREMANAK (355 lanurrats)						KANPO HARREMANAK (370 lanurrats)					
	Euskaraz		Eleberaz		Gazteleraz		Euskaraz		Eleberaz		Gazteleraz	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
	142	40,00	47	13,23	166	46,76	89	24,05	60	16,21	221	59,73

Iturria: Euskara Zerbitzua. Koadroetan jasotzen diren **datuak sortze-hizkuntzari dagozkio**, itzulitako kontuan hartu barik

- **Barne harremanetako euskarazko produkzioaren gorakada nabarmena izan da** eta hementxe dago euskarazko produkzioaren sorleku nagusia (2001ean %17,82 eta 2012an %40,00). Gaztelerazko produkzioak jaitsiera nabarmena izan du barne harremanetan eta eleberazkoak gorakada dezentea.
- **Kanpo harremanetako lanurratsetan, euskara hutsezko produkzioaren portzentajeak gora egin du 2008-2012 epean, hamar puntu gora.** Azpimarratu behar gaztelerazko produkzioak 23 puntu beherantz egin duela eta eleberazkoak, ostera, 13 puntu gora (%3,90etik %16,21era).
- Tamalez, 2001ean eta 2008an bezala, **itzulpen lanaren pentsura gaude 2012an ere**, batik bat kanpora begirakoan. **Itzulpenen bolumenak beherantz** egin du oro har 2012an, krisia bitarteko, eta nabarmenena Hirigintza Sailaren kasua dugu (2008koarekin alderatuta, ia %70 gutxiago).

2.4 Pozteko ondorioak labur bilduz:


- **2012ko egoera askoz hobea da** (idatziz euskaraz sortutakoa %32); bilakaera positiboa nabarmena da euskararen tratamendu orokorrari dagokionean; 2001ean %18,60 eta 2008an %24,93.
- **Hizkuntza eskakizunei dagokienean, betetze mailak bilakaera nahiko positiboa izan du:**
 - 1999an 59 derigortasundunak eta 29 egiaztatuak (%49,15)
 - 2012an 101 derrigortasundunak eta 77 egiaztatuak (%76,23)
- **Euskaraz sortutakoan izandako igoera, barne harremanetan** gertatu da batik bat.
- **Erdarazko produkzioak ere behera egin du barruko zein kanpoko lanurratsetan.** Egia da baita, erdarazkoaren jaitsiera gehiago nabarmendu dela barruko harremanetan.

2.5 Kezkatzeko ondorioak labur bilduz:

- **Euskarazko produkzio orokorra txikia da (%32)**, eta gaztelaniaz sortzen dena euskarara itzultzen da (produkzioaren % 40/45). Gaztelanitik euskararako itzulpengintzaren morrontzapean jarraitzen dugu eta egiten den apostua hori bada, normalizaziorako kaltegarria da oso, euskara ere lan hizkuntza bilaka dadin oztopo.
- **Kanpo harremanetan euskarazko produkzioa are txikiagoa da (%24a)**, barne harremanetakoa %40a izanik. Erdarazko produkzioa heren bat gehiago da kanporakoan


3. Herritarren gaitasuna (erabilera udalarekiko)

3.1 Euskaldungoa eta alfabetatuen kopurua



Iturria: Eustat (2006)

Euskaldunak + ia euskaldunak = %85



Iturria: Eustat (2006)

- Gernika-Lumon **euskaldunak** %67,87 izanik (2006 urtea), gehiengoa, %73,64, **alfabetatua** da; **BIZTANLERIAREN %50**.
- **ia euskaldunak** 2006an %17,38 izanik, hauetatik %50,55 **alfabetatua** da; **BIZTANLERIAREN %8,78**.
- **Euskaraz alfabetatuak: %58,78 (%50 + %8,78)**

3.2 Ahozko erabilera udalarekiko



Iturria: Euskara Zerbitzua

2012an udal administrazioan egindako datu bilketan islatu zaigu datu hori: udalarekiko ahozko harremanetan herritarren %54k erabiltzen du euskara.

2011n Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketan, kaleko ahozko erabilera %49 zen, udalarekikoa baino bost puntu gutxiago.

3.3 Idatzizko erabilera udalarekiko



Iturria: Euskara Zerbitzua

Herritarrek eta beste erakundeek **udalari aurkeztutako idatzietatik, %17,87 dago euskaraz eta %16,76 eleberaz**. Kontuan izanik biztanleriaren %58,78 alfabetatua dela, horrek adierazten duen potentzialidadetik urrun dago euskarazko idatzizko erabilera.

Udalak enpresetatik eta hornitzaileengandik jasotzen dituen **fakturen hizkuntza: bilakaera positiboa 2007tik hona**. Ia bikoiztu egin da portzentajea.

Euskara hutsean + eleberaz aurkeztutako FAKTURAK udaletxean	2007	2012
	%20	%34,72

4. Uztarketaren ordua:


Pentsaturik herritarren eta Udalaren arteko harreman idatzian desoreka nabarmena dagoela, astindua emateko ordua dela otu zitzaigun. Horretarako, ondoko kanpaina hau jarri genuen martxan.

**Gernika-Lumoko udalak euskeraz eta...
zuk zergatik ez?**

udalagaz hartu-emonak euskeraz izaten dozuz?

euskalduna zara?

Udala euskeraz funtzionatzeko prest dozu!



Gernika-Lumoko *udalak euskeraz eta...* **zuk zergaitik ez?**

**udalagaz
hartu-emonak
euskeraz izaten
dozuz?**

**euskalduna
zara?**

Udala euskeraz funtzionatzeko
prest dozu!

Urteroko neurketa egin eta herriari barri emoteaz arduratuko gara.
Udalerri euskaldunagoa lortuko dogu, auzolanean

UDALAGAZ ETA ADMINISTRAZIOAGAZ ERE EUSKERAZ.
GEUK LADUNDUKO DEUTSUGU:

Euskera zerbitzua: 94 627 0205 (Udaletxeko 1. solairuan)
www.gernika-lumo-euskaraz.com/euskara/itzulpenak



KANPAINAREN ZEHAZTASUNAK

1. Nori zuzendua

- Udalerriko herritar guztiei.
- Erakundeei eta eragileei (publikoak zein pribatuak: eskualdeko udalak, goi erakundeak, zerbitzu publikoak kudeatzen dituztenak, hitzarmenkide diren enpresa, saltoki eta elkarteak, ...).

2. Helburu orokorrak

- Herritar, eragile eta gainerako erakundeen ahozko eta, batik bat, idatzizko euskararen erabilera areagotzea udalarekin dituzten harremanetan.
- Idatziz euskaraz jarduteko Udalak eskaintzen dituen zerbitzuez informatzea.
- Udal erakundeak euskararekiko duen konpromisoa berrestea.

3. Kanpainarako lelo nagusia eta edukia

- Lelo nagusia: GERNIKA-LUMO UDALAK EUSKARAZ ETA..., ZUK ZERGATIK EZ?
- Leloa baliatuz, hausnarketarako ziria sartu eta euskaldunen jarrera astintzeko mezuak eta galderak planteatu.
- Gernika-Lumoko euskaldungoaren portzentajeak eta udalarekiko harremanetan erabilpen portzentajeak erabilita, egoeraren berri eman.

4. Kronograma. Noiz, zer

Noiz (2012)	Zer	Nork
Ekainean	Udal Erregistroko sarrera-datuak (euskarazko eskabide eta jakinarazpenen portzentajeak)	Euskara Zerbitzuaren hausnarketa
Irailaren 17tik urriaren 14ra	Kanpainako euskarriak moldatu eta zabalkunderako gutunak eta kartazalak prestatu	Euskara Zerbitzuaren ardura
Urriaren 17an	Kanpaina aurkezteko prentsaurrekoa	Komunikabideei
Urriaren 18tik 31ra	Gutuna eta kanpainarako kartela	Hitzarmenkide diren enpresa eta saltokiei, erakunde publikoei, eragile nagusiei
Urriaren 18an	Bandoa atarietan eta bi orrikoa buzoneatu	Herritar guztiei
Otsailean zehar (2013)	Udal Erregistroko sarrera-datuak (euskarazko eskabide eta jakinarazpenen portzentajeak)	Euskara Zerbitzuaren hausnarketa
Martxoan (2013)	Kanpainaren balorazioa (adierazleak)	Euskara Zerbitzuaren hausnarketa

5. Euskarriak/Zabalkundea

- Bi orrikoa (5.000). Buzoietan banatu da.
- Bandoa (400) atari guztietan.
- Gutuna+bi orrikoa (300): udalei, gainerako erakunde publikoei eta hitzarmen-gintza kanpainako kideei (enpresak, saltokiak eta ostalaritza, elkarteak).
- Toki komunikabideetan: Oiz-mendi telebista eta Hitzan jarraipen berezia (prentsaurrekoa, elkarrizketa,...).

6. Giza-baliabideak/Laguntza

- Euskara Zerbitzua (2 teknikari).
- Hitzarmengintza kanpainako dinamizatzailea, hitzarmenkidetara aldeztutako informazioa emateko (gutuna eta bi orrikoa).
- Begirale bat banaketarako (bandoa eta bi orrikoa).

5. Kanpainaren jarraipena / Inplementazioa

Asmoa geneukan 2013ko ekaina aldera **neurketa** egin eta hausnarketa egiteko, baina Udaltop-erako deia jaso eta nolabaiteko jarraipen daturen bat izateko, **urtarrila/otsailera aurreratu** behar izan dugu datu bilketa (Erregistroko sarrerak eta irteerak). Kontuan hartu behar da, kanpaina 2012ko urrian abiatu zela eta datu bilketa hau hiru hilabetegarrenean egin dugula, epe oso laburra. Gainera, konparatzekoak diren datu bilketak garai desberdinetan (2012koa ekainean eta 2013koa urtarrilean) eginak daude. Honako datuak islatu zaizkigu nolabaiteko bilakaera neurtzeko:

2013ko urtarrilaren 15etik otsailaren 15era arteko datu bilketa

	Euskaraz	Eleberaz	Gaztelaniaz
Erregistroko sarrerak	% 16	%28	%55,6
Erregistroko irteerak	%17	%81,2	%1,7

Datuen irakurketa (bilakaera):

- Euskarazko idatzizko harremanak (sarrerak) bere horretan mantendu dira (puntu bat beherago), eleberazkoak gorantz egin du 11 puntu eta gaztelaniazkoak beherantz beste 10 puntu.
- Udalak emandako irteerei dagokienean, euskara hutsezkoak sarreraren bestekoak dira eta eleberazkoa da nagusi nabarmen (gaztelaniazkoa, testimoniala).

Kanpaina inplementatzeari ekingo diogu eta, horretarako, hurrengo Erabilera Planean (V.a) **atal berezia** aintzat hartzea erabaki dugu: "herritarrak erabilera planean eragiten" (idatzizko euskararen erabilera areagotzeko, herritarrak eskabideak euskaraz aurkezteko motibatu,...).

AZKENIK EZ.....

Argi daukagu tipologia bateko edo besteko udalerrria izan, normalizazioari dagozkion fase guztiak igaro behar ditugula lorpenen arabera, eta gure kasuan egindakoa ere unean uneko beharrianak bultzatuta egin dugula.....

BAINA, **NORMALIZAZIO EGOERA PERFEKTURIK OTE DAGO?**

EGOERA BAINO, **EZ OTE DA PROZESU DINAMIKO IRAUNKOR BAT?**

UNEAN UNEKO **INTERPRETAZIOA EGITEKO, ESKU ARTEAN ZER DAUKAGUN ARGIZAN BEHAR....**

